


7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak funtzionatzeko, funtsezkoak diren zenbait baliabide fisiko, giza eta finantziarioak behar ditugu.

Lehenik eta behin, materialak eta lan-tresna fisikoak behar izango ditugu, gure produktak garatzeko eta ekoizteko beharrezkoak direnak. Lehen produktua, egokituta ez dagoena, gure hornitzaileak ekoitziko du eta ez da beharrezkoa izango materialetan inbertitzea. Dena den, produktua egokitzeko, braile makina batean epe luzerako inbertsio bat egingo dugu.

Ez dugu bulegorik izango. Kudeaketa lan egin, etxetik lan egingo dugu. Dena den, **biltegi** bat alokatu behar izango dugu, produktuak ekoitzita daudenean, horra eramateko eta bertan, braile makina izango dugunez, produktuak egokitzeko gai izango gara, hauek banatzeko prest egoteko eta banatzaileek, hortik atera eta haien helmugara irits daitezen lehenbailehen. Banatu baino lehen, langileek ziurtatuko dute dena ondo dagoela eta saltzeko prest dagoela.



Local en Calle Robledal, 1, Girón - Las Delicias - Pacífico, Málaga

375 €/mes ~~400€~~ ↓ 6%

30 m² 12,50 €/m² A pie de calle

Se alquila local/trastero en Málaga (Las Delicias) – Espacio en bruto, ideal para almacenamiento Se alquila local trastero en...

 Contactar



Gure ustez, oso lagungarria da lantzen ari garen desgaitasun horiek dituzten langileak sorkuntza-prozesuan inplikaturik egotea, haiek inork baino hobeto baitakite zer desabantaila edo abantaila dauden jokoetan. Horregatik, haiek izango dira proposamenak egingo dituztenak eta produktuen sortzaile nagusiak. Badirudi gaur egun merkatuan dauden produktuak egokituta daudela, baina, egia esan, ez daude guztiz. Gu arduratuko gara enpresa kudeatzeaz eta web orria gauzatzeaz, ikusgarria eta ulergarria izan dezan. Hala ere, produktuak biltegitratzeko eta banatzeko,

langileek, paketatu eta correo express banaketa-enpresa kontratatuko dugu, lagunduko diguna Espainiako produktuak behar bezala banatzen eta osorik iristen.

Finantziatzeko, geure ekarpen propioez gain, inbertitzaile bat beharko dugu. Aukerarik argiena, **"crowdfunding"** da. Finantziazio-moduaren

bidez, gure proiektua eta bere helburu soziala aurkeztuko dugu plataforman, eta horrela, nahi dutenek dirua jarri ahal izango dute, horren truke

ezer jasotzea espero gabe. Azkenik, helburu inklusiboa eta soziala duten enpresentzako laguntza publikoak jaso nahiko genituzke.

